

Sai zuriaren migrazioa

negu denborako mehatxuak

Gaur egun Afrikara heltzen diren migratzaileek egoera gero eta zailagoekin topo egiten dute. Basamortutzea larriagotu da Sahelen, non aspaldidanik transhumantzia handia egiten baita (Mendebaldeko Afrikako behien eta hausnarkari ttipien %50), klimaren aldaketari eta batez ere handitu den jendearen presioari loturik.

Klimaren aldaketa

Urtez urte, tenperaturak igotzen doaz eta prezipitazioak gero eta aldakorragoak, urtaro euritsu laburragoak edo berankorragoak dira, eta epe laburrean bildu euri handien emendatzeko joera bada.

Jendeak ekarri testuingurua, eta habitaten andeatzea

Badu hogeita hamar bat urte Mendebaldeko Afrikako bizilagunen emendatze handiak eta horri lotu elikadura beharrak laborantza lurren zabaltze azkarra ekarri dutela (+ %3tik + %6ra urtean, Mendebaldeko Afrikan) abere tropen alhapideak eta transhumantzia bideak pirka-pirka ttipituz. Sedentario bilakatu abeltzainen kopurua emendatu da. Gehiegizko alhatzea ere emendatu da, bai eta egur gehiegi moztea (labakitzea, oihanen ustiatzea: sutarako egurra eta zur esportazioa, etab.). Sahelgo hegoaldean, sabana naturalen andeatzea sabanako suei lotua zaie; Euskal Herriko mendiko suak bezala, belarra hazten laguntzea dute xede. Han, hemen bezala, su horien helburua eta garaia kalte guti edo aski egin diezaiekete ingurumenari eta bioaniztasunari.

Saiek bizi dituzten eraginak : jateko baliabideen ttipitzea eta mehatxuak

Nahiz eta transhumantzia erabiltzen duen abere hazkuntza handia izaten segitu, eta beraz nekrofagoen probetxuko, osasun baldintzen hobetzeak eta hilikien suntsitzeak janari eskaintza ttipitu dute eta, horrez gain, abere apodun basen talde handiak desagertu dira.

Fenomeno horiei zuzeneko eta zeharkako mehatxu anitz gehitzen zaizkie:

- ihizi legalaren eta ilegalaren presioa (saien kontra ere), bereziki basa haragi eta medikuntza tradizionalako merkatuen hornitzeko;
- pozoitzeak, abere tropak eraso ditzaketen harrapakarien suntsitzeko, bai eta fauna handiaren kontrako ihizi ilegalari loturik; pozoitze horiek Afrikako saien heriotzen zergati nagusi bilakatu dira;
- intoxikazio arriskuak, albaitaritza-produktuak (antiinflamatorioak) edo laborantza-produktu toxikoak eta pestizidak nasaiki erabiltzeagatik, errendimenduen garatzeko eta Acrididae familiako intsektuen (matxinsaltoak) kontra borrokatzeko.

Azkenik, garapen ekonomikoarekin, aireko elektrizitate sarea fite garatzen ari da eta kaskakoak eta elektrokuzioak hegazti handien kontrako mehatxu nagusi bilakatu dira. Arrisku hori larriagotuko da Maliren, Senegalen eta Mauritaniaren arteko tentsio handiko linea berrien eraikitzearekin.

Erdialdeko eta Ekialdeko Afrikako tentsio handiko harietan elektrokutatzeagatik gertatu heriotzak Balkanetako sai zurien populazioen gainbehera ekartzen duen arrazoi erabakigarriak dira, iduriz.

Testuinguru hortan, satellite bidezko segimenduak interes handia du saiek neguko leketan duten kokapen zehatza eta balizko mehatxuak ezagutzeko, bai negua pasatzen duten sai helduentzat, bai gazteentzat, zeinak hainbat urte iragaten ahal baitituzte Afrikan, migrazio erregularrak egiten hasi aitzin ■

Bibliografia

. Buechley, E.R., McGrady, M.J., Çoban, E. & Şekercioğlu, C.H. (2018) Satellite tracking a wide-ranging endangered vulture species to target conservation actions in the Middle East and East Africa. *Biodiv. Conserv.* 27 : 2293–2310.

. Di Vittorio, M. & al. (2018). The conservation status of West African vultures : an updated review and a strategy for conservation. *Vie et Milieu / Life & Environment* 68 : 33-43.

. Kret, E., Rabeil, T., Muhammad, S.I., Shiiwua, M., Hall, P., Arkumarev, V., Dobrev, V., Nikolov, S.C. (2018). First documented case of the killing of an Egyptian Vulture (*Neophron percnopterus*) for belief-based practices in Western Africa. *Vie Milieu Life & Environment.* 68 : 45–50.

. Ogada, D. et al. (2015) Another continental vulture crisis: Africa's vultures collapsing toward extinction. *Conserv. Lett.* 9 : 89–97. Doi : 10.1111/conl.12182

. Opper, S., Dobrev, V., Arkumarev, V., Saravia, V., Bounas, A., Kret, E., Veleviski, M., Stoychev, S. & Nikolov, S.C. (2015) High juvenile mortality during migration in a declining population of a long-distance migratory raptor. *Ibis* 157 : 545–557.

. Phipps, L. Mouvements et écologie spatiale des vautours percnoptères suivis par GPS de la vallée du Douro au Sahel. Vulture Conservation Foundation. Rupis. <http://www.rupis.pt/en/>

. Thiollay, J.M. (2006) The decline of raptors in West Africa: long-term assessment and the role of protected areas. *Ibis* 148 : 240–254.

